

PREMIOS APRENDIZAJE-SERVICIO 2020
2020KO IKASKUNTZA-ZERBITZU SARIAK

**"ADINEKO PERTSONEKIN
SOLASEAN!"**

"JUGANDO CON LAS PERSONAS MAYORES"



1.- PROIEKTUAREN LABURPENA, BIDEORA ESTEKA ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIKO LOTURA

LABURPENA:

Ikaskuntza-Zerbitzu hau, Gipuzkoan kokatzen den herri batean burutu da, hala nola, Aratz deituriko Ikastetxean, Hernani herrian kokatzen dena. Lehen Hezkuntzako 1. Mailako ikasleek osatutako proiektua izan da eta adineko pertsonekin egon dira elkarlanean, zehazki, Hernaniko Zaharren Egoitzarekin. Proiektu honen helburu nagusietako bat, esan bezala, adineko pertsonekin elkarlanean egotea izan da, horrela, parte-hartzea, kooperazioa eta garapen integrala bultzatuz. Izan ere, egoilarrek burutzen dituzten memoria jarduerak, eskulanak, erlajazio tailerrak, ... ikastetxean bertan 1. Mailakoek ere burutzen dituzte, beraz, eduki berak lantzen dituzten pertsonak dira, baina adin tarte ezberdinak dituztelarik. Egoera hori ikusiz, eta kolektibo horren eskusio soziala kontuan hartuz, ikasleek adineko pertsonekin igarotzearen ideia aurrera eraman eta tailer ezberdinak burutu dira, ikastetxeko edukiarekin lotuz. Adineko pertsonak zein ikasleek parte-hartze aktiboa dituzten ekintzak burutu dituzte, gabonetara bideratutako gai ezberdinak landuz eta aldi berean ere, batzuetan ikasleek bideratutako saioak prestatuz, eta kontrako aldean ere, adineko pertsonak bideratutakoak. Beraz, elkarren arteko esperientzi aberastasuna jaso dute, ikaskuntza aktibo eta ezberdin bat sustatuz.

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIKO LOTURA:

1. Helburua: Osasuna eta ongizatea.
2. Helburua: Kalitatezko hezkuntza.
3. Helburua: Desberdintasunak murriztea.
4. Helburua: Hiri eta komunitate jasangarriak.
5. Helburua: Bakea, justizia eta instituzio sendoak.
6. Helburua: Helburuak lortzeko itunak.

BIDEOAREN ESTEKA: <https://youtu.be/hU98UZ9hzh8>

PROIEKTUA AURKEZTUKO DEN SARIETARA:

- a. Lehen aukera, *adineko pertsonen emandako babesa eta laguntza* saria (premio al apoyo a personas mayores).
- b. Bigarren aukera, *Inklusioaren* saria (premio a la inclusión).
- c. Azkenik, hirugarren aukera, *Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan egindako Ikaskuntza-Zerbitzua proiektuaren* saria (premio al aprendizaje-servicio en la etapa de Infantil-Primaria).

2.- PROIEKTUAK ERANTZUNA EMATEN DION INGURUAREN GIZARTE EDO BEHAR SOZIALA

Proiektu honi erantzuna ematen dioten zenbait behar sozialak izan ohi dira, zoritxarrez, gizarte honetan oraindik kolektibo honekiko elkarlana ez baita behar bezain sakona. Sarritan, albo batean mantentzen dira, beste kolektiboekin interakziorik izan gabe. Hau horrela izanik, behar soziala dagoela aldarrikatu eta honi, bultzada bat ematea eta ikuspegi soziala aldatzen joateko proiektuari indarra eman nahi izan da.

Bizi kalitatea izatea garrantzitsua da, eta hori ez da osasuna izatea bakarrik, baizik eta emozionalki ere ongia izatea. Adibide gisa, adineko pertsonen baztertzera eragin negatiboak izan ditzakete, eta oraindik, sozialki ez gara ohartu zein garrantzitsua den eurentzat.

Egoera honi aurre egiteko, inklusioa bultzatu eta kooperazioa sustatu behar dugu, gertutasuna eta harremanak lantzeko aukera izan dezaten, eta horrela, isolamendua saihestuko da, integrazioa eta parte-hartze sozialaren bitartez. Horretarako, entitate ezberdinen artean kolektibo hau indartu, lagundu eta errekonozimendu soziala egitera eramaten gaituzten bideak lantzen joan behar dira, parte-hartze aktibo horren parte sentitzeko.

3.- PROIEKTUA GARATU DUEN IKASLEGOAREN HEZKUNTZA BEHARRAK

Orokorrean, taldearen testuingurua atzerriko haur askoz osatutakoa da, eta beraz, askok euren familietatik hurrun daude, batez ere, amona eta aitonengandik. Aukera paregabea izan da, familiako estruktura ezberdinak ezagutzeko eta aldi berean ere, adin tarte horrekiko kontzientziazioa izateko eta elkar komunikazioan aritzeko ere, edukiak kontuan hartuz, noski. Aldi berean, gertutasuna bilatu da, izan ere, haur hauen egoera emozionala ez da erraza, eta esan daiteke, adineko pertsonen eskaini dietela haurrei falta zaien gabezi edota hutsune horiek, eta kontrako aldean, poza, interakzioa zein bestelakoak, haurrek adineko pertsonen.

Beraz, esan daiteke, nahiz eta adin tarte honekiko errespetua izan, badaudela zenbait gaitasun zein helburu nagusi landu dituztenak eta bosgarren atalean azalduko direnak. Horretaz gain, talde lana izan da nagusiki sustatu dena, interkomunikazioaren bitartez.

4.- ZERBITZUAREN DIMENTSIOA ETA DITUEN EGINKIZUNEN DESKRIPZIOA

Zerbitzu honen funtsa, 1. ebaluazioan zehar landutako edukiak adineko pertsonekin lantzea izan da, eta kontrako aldean ere, eurek ere burutzen dituzten ekintzen barnean parte-hartzea. Izan ere, egoitza zein ikastetxearen aldetik, bat gatoz bien ekintzen nahasketa burutzea, aberatsa baita denontzat.

Kontuan izanda bi kolektibo hauen arteko erlazioak, jarraian, aste horretan zehar landu ziren 6 ekintza ezberdinen deskribapen txikia agertzen dira. Bi kolektibo hauen artean banatu dira ekintzak, batzuetan irakasle zein gida moduan egongo direnak, eta ondoren, alderantziz, horrela, elkarrekiko interakzioan egon eta aldi berean ere, parte-hartze aktiboa sustatuz:

1. Gimnasia: adineko pertsonen begiraleek gidatutako saioa izan da. Bertan, esku zein besoekin landutako zenbait jarduera burutu dituzte, motrizitate fina eta mugimendua landuz.

2. OR Standrad: Memoriaren inguruko saioak burutu dira. Horretarako, ikastetxeak abian duen Funtzio Exekutiboen metodologia aplikatua izan da, batez ere, memoria jolasak. Metodologia honen helburua haurren garapen kognitiboa lantzea da, pixkanaka garuna osatzen lagunduz eta zonalde ezberdinak indartuz. Beraz, ikastetxetik prest eraman den saioa izan da.

3. Sukaldaritza tailerra: elikagai ezberdinekin, 1.mailako ikasleek errezeta simple bat aukeratu dute, eta bertan, adineko pertsonekin batera burutu dute, tailer moduan. Izan ere, ikasgelan landutako piramidea bertara eraman genuen, elikagai osasuntsuak zeintzuk diren azalduz eta horren inguruko hausnarketa egin ondoren, gaileta osasuntsuak egin genituen.

4. Zenbakiekin jolasak: jolas tradizional ezberdinak erabili dira, talde txikietan landuz. Adibide moduan, zenbakien bingoa.

5. Eskulan tailerra: tailer honen helburua egoitza gabonetako apaingarritz dekoratzea izan da, eta horretarako, gabonen inguruko apaingarri zein eskulan ezberdinak burutu dituzte, elkarrekiko harremana sustatuz.

6. Musika tailerra: talde ezberdinetan ipini dira, eta horrela, gabon kanta ezberdinak landu dituzte, baita olentzerorekin erlazionaturiko historia ezagutu ere.

Aipatu moduan, elkarlanean aritu dira, izan ere, bi solairu ezberdinetan ibili dira, egunero batean egonik eta astebetez txandakatuz. Ikasleek zein adineko pertsonek gidatutako saioak izan dira, elkarren arteko nahasketa bat osatuz, interakzionatuz eta rolak aldatuz.

Hurrengo taula honetan, laburpen moduan, astebeteko denboralizazioaren zehaztapenak ageri dira:

DENBORALIZAZIOA							
1.EBALUAZIOA / IKASKUNTZA-ZERBITZUA PROIEKTUA							
ORDUT.	2.ASTE ABENDUA (1.eguna)	2.ASTE ABENDUA (2.eguna)	2.ASTE ABENDUA (3.eguna)	2.ASTE ABENDUA (4.eguna)	3.ASTE ABENDUA (5.eguna)	3.ASTE ABENDUA (6.eguna)	3.ASTE ABENDUA (7.eguna)
10:30	GIMNASIA	GIMNASIA		GIMNASIA	GIMNASIA	GIMNASIA	GIMNASIA
11:15	(3.Solairua)	(2.Solairua)		(2.Solairua)	(3.Solairua)	(2.Solairua)	(3.Solairua)
11:15	ATSEDENALDIA						
11:30							
11:30	ESKULAN	ZENBAKI	MUSIKA	FUNTZIO	FUNTZIO	SUKALDARITZA	AZKEN
12:30	TAILERRA	JOLASAK	TAILERRA	EKUTIBOAK	EKUTIBOAK	TAILERRA	FESTA!

5.- HEZKUNTZA HELBURUAK, GAITASUNAK ETA LOTURA KURRIKULARRA

Proiektu honen helburu orokorretako bat, 1.ebaluazioan landutako **edukiak** praktikan ipintzea izan da, eta irakasgaiei erreparatzen badiegu, bost izan dira garatu direnak, besteak, beste, 236/2015eko Dekretuan ageri diren eduki multzoak kontuan hartuz, hala nola, Gizarte Zientziak, Matematika, Gorputz Hezkuntza, Euskera eta Gaztelania.

GIZARTE ZIENTZIAK

1. Ohitura osasungarriak sustatzea.
2. Elikadura ezberdinen ezagutza.
3. Elikagai ezberdinen manipulazioa eta erabilera sustatzea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

1. Norberaren ezagutza eta kontrola.
2. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.
3. Jarduera fisikoa eta osasuna.
4. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

EUSKARA/GAZTELANIA

1. Informazioa ulertzea eta besteei azalera.
2. Ideien sormena, antolaketa eta hau azalera.
3. Harremanak (norbanakoarena eta taldekoa) sustatzea.
4. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.
5. Idatzizko komunikazioa: idaztea eta irakurtzea.
6. Euskara hizkuntza sustatzea.

MATEMATIKA

1. Zenbakien esanahia eta erabilgarritasuna ematea eguneroko bizitzan.
2. Batuketak eta kenketak ulertzea eta hauek barneratzeko estrategiak eskuratzea: jolasak.
3. Buruzko kalkulua barneratzea.
4. Denbora neurtzeko tresnak: hilabetak, urtarok, egunak.

Irakasgaietaz gain, ikastetxean bertan garatu diren beste bi metodologia landu dira, zehazki, Funtzio Exekutiboak eta IK-KI (Ikasketa kooperatiboa). Ikasketa kooperatiboa, egunero landuko duten ekintza izan da, izan ere, edozein jardueraren aurrean, talde txiki zein handietan lan egin baitute.

Bestetik, Funtzio Exekutiboari dagokionez, OR Standrad deituriko irakasgaian burutuko dituzte, izan ere, memoria, arreta, planifikazioa zein bestelako funtzioak landuko dira, garapen kognitiboa osatuz.

- **Hezkuntza helburuak:**

GIZARTE ZIENTZIAK IRAKASGAIA:	GORPUTZ HEZKUNTZAREN IRAKASGAIA:
1. Elikadura osasungarri eta ez-osasungarriak sailkatzea. 2. Elikaduraren piramidea ezagutzea eta elikagai ezberdinen mailaketa ikastea. 3. Sukaldeko tresnak ezagutzea eta erabiltzen ikastea. 4. Errezeta errazak egitea.	1. Norberaren ezagutza eta kontrola izatea. 2. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa lantzea, ahozkoa batez ere. 3. Jarduera fisikoa eta osasuna sustatzea. 4. Kultura motorra sustatzea eta lantzea: aisia eta denbora librerako hezkuntza.
HIZKUNTZEN IRAKASGAIA (EUSKERA ETA GAZTELANIA):	MATEMATIKAKO IRAKASGAIA:
1. Alfabetoa ezagutzea letra larriz eta xehez. 2. Ikasitako letrekin hitzak osatzea eta idaztea. 3. Sukaldeko tresnak ezagutzea eta erabiltzen ikastea. 4. Errezeta errazak egitea. 5. Idatzizko mezuak ulertzea eta eskatzen zaizkion zereginak egitea.	1. Zenbakikuntza: 1-30era arteko zenbakien ezagutza eta erabilera. 2. Soberan eta falta kontzeptuak ulertzea. 3. Buruzko kalkulan trebatzea. 4. Objektuak espazioan kokatzea. 5. Denborazko sekuentzien ordena ezagutzea, errutinak ezarri.

- **Gizartearekiko zein bestelako helburuak:**
 - **Funtzio Exekutiboen metodoa:**
 1. Garapen kognitiboa estimulatzeko.
 2. Egunerokotasunean bete beharreko helburuak eskuratzen laguntzea.
 3. Antolakuntza eta arreta mantentzea.
 4. Inpultsibitatea murriztea eta sormena garatzea.
 - **Gizartearekiko/sozialki lortutako helburuak:**
 1. Talde-lanean errespetuz aritzea.
 2. Iritziak eta ideiak errespetatzea.
 3. Arauak eta pertsonak errespetatzea.
 4. Autonomia garatzea.
 5. Norberaren ikaskuntza-prozesuaz jabetzea.
 6. Arazo egoeretan edota errealitate egoeretara egokitzea eta konponbidea ematea.
 7. Harreman sozialak sustatzea.
 8. Konpromezua izatea.
 9. Proiektuaren helburuak ulertaraztea eta hausnartzea.
 10. Gatazken aurrean konponbidea ipintzea.
 11. Bizikidetzaren bultzatzea.
 12. Norberaren gorputza eta emozioak erregulatzea.
 13. Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.
- **Landuko diren gaitasunak:**

Abian ipinitako 236/2015eko Dekretuan ageri diren konpetentzietatik, hauek izango dira, batez ere, garatuko direnak, nahiz eta gainerakoak zeharka landu ahalko diren:

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
2. Elkarbizitzarako konpetentzia
3. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
4. Hizkuntza eta literatura komunikatzeko konpetentzia
5. Matematikarako konpetentzia
6. Zientziarako konpetentzia
7. Konpetentzia sozial eta zibikoa

6.- IKASKUNTZA ETA HAUSNARKETA JARDUERAK

Ikaskuntza-Zerbitzu honetan, aldiro ikaskuntza-hausnarketa prozesu bat egon da, arlo ezberdinetan oinarrituz. Izan ere, ikasleentzat zerbait berria izateaz gain, adineko pertsonetatik izandako estereotipoak ezabatu dituzte, eta horretarako, aurremotibazio saioetan hasiera eman zitzaion hausnarketa sakon baten bitartez, zer nolako pentsamendua eta iritzia zuten aipatuz eta erreflexionatuz.

Ospakizun edota ekintzak burutzerakoan, ikasleek sakonago egin zituzten hausnarketa ezberdinak, izan ere, praktikara bideratuta, egoeraren inguruaz ohartzeko errazagoa zen eta. Horrekin batera, eta aldi berean ere, proiektua amaitu ondorengo hausnarketan, zenbait gauzetaz ohartu ziren, honako hauek direnak:

- Adineko pertsonak dituzten beharrak zeintzuk diren ezagutu dira.
- Adin ezberdinak izan arren, zenbat gauza dituzten elkarrekiko eta zein gustura ibili diren ohartarazi dira.
- Adineko pertsonen baztertzeaz hausnartu dute, adibideen bitartez.
- Kooperazioan lan egiten ikasi dute eta harreman sozialak sustatu ere.
- Norberaren ikaskuntza-prozesuaz jabetu dira, autonomia gehiago izanez.
- Proiektuaren helburuak ulertarazi eta hausnartu dituzte.
- Norberaren gorputza eta emozioak erregulatzen hasiak dira.
- Inklusioa eta parte-hartze aktiboaren garrantziaz erreflexionatu dute.
- Etab.

7.- IKASLEGOAREN PARTE-HARTZEA, PROTAGONISMOA ETA ANTOLAMENDUA

Ikasleen parte-hartzea, oso aktiboa eta gogotsua izan da, izan ere, kooperazioan lan egin eta elkarlanean burutu dituzte ekintzak, protagonismoa jasoaz. Gainera, ekintzak garatzerakoan, harreman sozialak sustatzen joan dira, adineko zein haurren artean.

Lehenengo aipamenetik, proiektua aurrera ateratzeko jarrera izan dute eta baita motibazioa, izan ere, hau, aurremotibazioaren bitartez pixkanaka indartzen joan da, eta bertan, emozioen bitartez ikaskuntza ezberdinak barneratzen eta kooperazioa lantzen joan dira, dinamika ezberdinen bitartez. Horrekin batera, protagonismoa ere nagusitu da, batez ere, haur eta adineko pertsonengan, izan ere, euren autonomia propioaren bitartez, ekintzak aurrera eramanez eta inklusiorako eta integrazioarako bidea hartzen joan dira, motibazio eta parte-hartze handiarekin.

Antolamenduari dagokionez, orokorrean, talde handian landutako jarduerak izan dira. Azalpenak eman ahal izateko, talde ezberdinak egin ziren aurremotibazioan, eta horrela, talde bakoitzak gelako txoko ezberdinetan euren azalpenak ahoz prestatu zituzten, komunikazioa garatuz. Horrela, egun bakoitzean, talde txiki horietako bat azaltzen joan zen ekintza, adineko pertsonen hezitzailearekin eta irakaslearen laguntzaz, noski. Beraz, talde guztien eta bertako pertsonen parte-hartzea aurrera eraman zen, txandaka ibiliz.

Bestalde, aipatzekoa da, ikasleen adin tartea 6-7 urtekoa zela, beraz, zenbait momentuetan, irakasleak eramaten zuen ekintza aurrera, laguntzaileak ikasleak izanik. Ekintzen praktikotasuna eta ulermena bilatzeko, azalpenak ahoz azaldu eta aldi berean ere, adibideen bitartez adierazi ziren, horrela, bisualki ere ondo ulertuz. Ahozko komunikazioa hobetu dute, izan ere, besteen aurrean aurkeztera ohitu baitira. Balorazioari dagokionez, ekintzaren amaieran, egoilar zein haurrei galdetzen zitzairen ea zer moduz iruditu zitzairen ekintza eta bertan, hausnarketa ezberdinak egoten ziren. Proiektuaren amaieran, hezitzaile zein irakaslearean arteko hausnarketen bitartez, balorazioa zein hurrengo urteetarako hobekuntzak egin zituzten.

8.- PROIEKTUAK SAREAN BEHAR IZAN DUEN LANA

Proiektu honetan, zenbait erakunde zein elkarte ezberdinekin burutu da, zehazki, hiru eragile nagusi: Lahar Elkartea, Hernaniko Zaharren Egoitza eta Hernaniko Udala.

Alde batetik, Lahar Elkartea kokatzen da, adineko zentroan dauden hezitzaileen elkarte dena eta beraz, euren helburua Aratz Ikastetxean bezala, pertsona horiekin jolas zein ekintza ezberdinak burutzea da, euren autonomia mantendu, mugimendua landu eta interakzioa izan dezaten, besteak beste. Bestalde, Hernaniko Zaharren Egoitza kokatzen da. Adineko pertsonen etxea da, non bertan, langile ezberdinez osatuta dagoen, eta eurei bizi-kalitatea hobetzen saiatu eta zaintzea da helburuetako bat. Bai Lahar eta baita Egoitza ere elkar ekintzan aritzen dira, beraz, harremanetarako kontaktua pertsona berdina izan dira. Oso ondo koordinatuta egon da, izan ere, astero bilerak egin izan dira eta proposamen guztietara moldatu eta ideia berriak ere sartzen joan gara.

Amaitzeko, aipatu Hernaniko Udala, nahiz eta kontaktu zuzenik ez izan, proiektua aurkeztu zenetik bat etorri da planteatutako ideia guztiekin, beraz, hemendik ere, eskerrak ematea besterik ez dago, horrelako proiektuei indarra eman eta sustatzen uzteagatik.

9.- OSPAKIZUNA ETA DIFUSIOA

Ospakizuna 7 egunekoa izan da, izan ere, egunero, ekintza ezberdinak burutu dira, eta ikastetxe ondoan dagoen euren egoitzara hurbildu gara egunero astebetez, abenduko hilabetean, zehazki, 2. Eta 3. asteetan zehar.

Lehenengo egunean, egoilarrekin ezagutu eta konfiantza hartu zen, beraz, pixkanaka-pixkanaka eroso sentitu eta oso pozik egon ginen guztiok. Oso harreman onak eta politak egin dira, eta gainera, asko lagundu dira elkarri. Azken egunean, pena handiz joan ginen bertatik. Amaieran, ospakizun txiki bat egin zen, festa modukoa, egondako aste hori ospatuz eta ikasitako guztia aplikatzeaz gain, balore ezberdinak landu dituztelako ere. Aratz ikastetxeko irakasle taldea ere oso gustora geratu zen, baita bertako langileak eta herriko udaletxetik ere eskerrak eman zituzten. Hasieran, ikasleak ohituta ez zeuden errealitate bat ikusi zuten, eta lotsaturik zeuden, baina denbora pasa ahala, egoera normalizatu eta harreman sozialak burutu zituzten.

Difusioa burutzeko, batez ere, sare sozialak erabili dira, ikastetxeko kontu ezberdinetatik. Aldi berean ere, gurasoei mezu zein ahoz helarazi zitzaien eta oso proiektu interesgarria iruditu zitzaien. Prentsari dagokionez, herriko egunkarian, “Urumeako kronika” deiturikoa, portada moduan atera ginen, proiektua ezagutu eta azaltzeko asmoz.

Orokorrean, proiektua oso ondo atera zen. Lehen aldia zenez, normala den moduan, zenbait akats txiki daude hurrengo ikasturtean hobetu ahal izateko, baina oso gustora ibili gara, bai ikasleak, egoilarrak eta proiektuan parte-hartu duten pertsona guztiak.

10.- PROIEKTUAREN FASEEN EGUTEGI ETA DESKRIPZIOA

JARDUEREN EGUTEGIA						
URRATSAK/ JARDUERAK	2019					
	Azaroko 1.Astea	Azaroko 2.Astea	Azaroko 3.Astea	Azaroko 4.Astea	Abenduko 1.Astea	Abenduko 2.Astea
1.URRATSA: Proiektuaren zirriborroa	X					
2.URRATSA: Elkarte zein egoitzarekin harremanetan jartzea	X					
3.URRATSA: Proiektuaren plangintza		X	X			
4.URRATSA: Ikasleekin honen inguruko lanketa egin				X		
5.URRATSA: Proiektua abian jarri	1.Saioa				X	
	2.Saioa				X	
	3.Saioa				X	
	4.Saioa				X	
	5.Saioa					X
	6.Saioa					X
	7.Saioa					X
6.URRATSA: Proiektuaren balorazioa	Proiektuaren amaieran, abenduko 3. Eta 4. astean zehar.					

Ospakizun astearen azalpenak eta eskema 4. puntuan ageri dira, banan-banan azalduta. Bestalde, taulan ageri den moduan, proiektu honetan fase ezberdinak ageri dira, bakoitzean zer egiten den aipatuz. 4.Urratsean hasten dira ikasleak interakzioan, izan ere, aurremotibazioa egiten da eta. Bertan, gaiaren inguruko lanketa egin zen, simulakro ezberdinak eginez eta pixkanaka prestatzen hasi ziren 5. Urratserako, hau da, saioak eta ekintzak aurrera eramanez ahal izateko. Aipatu moduan, zerbitzua Hernaniko Zaharren Egoitzan burutu zen, eta iraupena 7 egunekoa izan da, tartean asteburua izanik, zehazki, abenduko 2. eta 3. asteetan barrena.

11.- PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO BEHARREZKO BALIABIDEAK

Proiektu hau aurrera eramateko, honako baliabide ezberdinak erabili behar izan dira:

GIZA BALIABIDEAK	MATERIAL BALIABIDEAK	BALIABIDE EKONOMIKOAK
Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleak Hezitzaileak Adineko pertsonak Ikastetxeko irakasleak	Gela arrunta Esterilak Memoria jolasa Bingorako kartoiak eta gainerako materiala Eskulanen marrazkiak	Sukaldaritza tailerrerako elikagaiak Gainerakoan, ez dira gastuak egon, izan ere, ikastetxeak zein Zaharren Egoitzaren materiala baita.

12.- PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Dimentsio pedagogiko zein zerbitzuetako balorazioa oso positiboa da, izan ere, helburu guztiak bete dira, bai akademikoki, baita bestelako helburuak ere, bai sozialak edota baita baloreen ezagutza. Orokorrean, ez dira zailtasunak izan, baina bai zenbait egoera hobetu daitezkeenak, hala nola, lehen urtea denez, eta nahiz eta ondo antolatu, beti hobetu daitezke gauzak.

Ikasleen parte-hartzea oso ona izan da, denbora guztian aktibo egon dira eta hauentzako estimulazio bat izan da, baita egoilarrentzat ere. Oso jarrera ona izan dute eta taldean lan egiten ikasi ere, besteak beste, oso esperientzia aberasgarria izan da orokorrean. Sozialki ere harreman estuak egin dituzte, eta aldi berean, errealitate berri bat ezagutzeko aukera izan dute.

Egoitza eta Ikastetxearen balorazioa proiektua amaitzerakoan burutu da, izan ere, ekintza amaitu ostean, bi eragileak elkartu gara, izan ere, ekintza nola joan den baloratu eta hurrengo urteetara begira zer hobetu daitezkeenaren inguruan hitz egin da. Orokorrean oso pozik geratu gara, bion aldetik.

Bestalde, aipatzekoa da honako puntu indartsu nagusi hauek dituela proiektu honek, nahiz eta jakin beste hainbeste ere badituela:

- o Harreman sozialak sustatzen dira.
- o Ebaluazioko edukien errepasoa burutzen da.
- o Jarduera Fisikoa lantzen da.
- o Adimen emozionala lantzen da.
- o Maitasuna eskaini eta jasotzen da.
- o Bizitzarako beharrezkoak diren bestelako balore zein helburuak barneratzen dira.
- o Etab.

Hobekuntzei dagokionez, batez ere, ekintza zehatzetako detaile txiki batzuk izan dira, honako hauek, adibide moduan:

- **Zenbaki jolasak tailerra:** bingoa egin zen, baina haurrentzat bi edo hiru bingo egitea astuna edo luzea egin zen. Hurrengo urtera begira, bingoa behin egin eta beste joku bat planteatu.
- **Abestien tailerra:** Helduen abestiak landu genituen gehienbat. Hurrengo urteari begira, haurrek gabonetan lantzen dituzten kantu gehiago sartzeari proposatzen da, adinekoek berriak ezagutu eta haurrek ere euren kantuak lantzeko.
- **Sukaldaritzaren tailerra:** oso ondo joan zen, baina denbora aldetik justu xamar. Hurrengo urteari begira, tailerra goiz osoan zehar burutzea, horrela, lasaiago egin ahal izango da (denboraz justu xamar).
- **Eskulanen tailerra:** oso ondo egon zen, baina denbora agian eskasa. Goiz osoa edota bi egun ezberdin ipintzea ondo egongo legoke, gustura aritu ziren egoilarrak eta haurrak.

Lehen aipatu bezala, orokorrean bion aldetik oso gustura gelditu gara, eta bientzat aberatsa izan dela adierazten dugu. Normala den moduan, hobekuntzak beti egon daitezke, eta beraz, proposamen hauek hurrengo urteari begira beste lanketa bat emateko prest geratu gara, ahalik eta hoberen egiteko.

Beraz, hemendik, eskerrak ematea besterik ez da geratzen, proiektu honetan parte hartu duten pertsona guztiei, eta noski, hurrengo urtea heltzeko gogoz geratzen gara.